



CONVENIO por el que canaliza la subvención prevista nominativamente en el Presupuesto Municipal concedida directamente por AYUNTAMIENTO DE BILBAO – *AREA DE SALUD Y CONSUMO* a la Asociación Comisión Antisida de Bizkaia, para el desarrollo del Programa de Atención Básica Integral, Adquisición de Hábitos Saludables y el Programa de Acogida y Acompañamiento Sociosanitario del dispositivo “Centro de atención y emergencia socio-sanitaria para personas usuarias de drogas en grave exclusión social”

R E U N I D O S

De una parte, D. Álvaro Pérez Alonso Concejal Delegado del Área de Salud y Consumo del Excmo. Ayuntamiento de Bilbao, por delegación de la Junta de Gobierno de fecha **x de marzo de 2024**

Y de otra, D^a Marta Pastor de la Cal, en representación de la Asociación Comisión Ciudadana Antisida de Bizkaia, con CIF. G-48234934.

Ambas partes, en la representación que ejercen, se reconocen con capacidad legal suficiente para la celebración del presente acto y, a tal fin,

E X P O N E N

Primero.– El Ayuntamiento de Bilbao – Área de Salud y Consumo (en adelante Área de Salud y Consumo), en el marco de lo dispuesto por la Ley 2/2016 de Instituciones Locales de Euskadi (Art. 17.1.10), ejerce la competencia propia en el ámbito material “promoción, gestión, defensa y protección de la salud pública” y, más específicamente, las funciones previstas por la legislación sectorial, Ley 1/2016 de Atención Integral de Adicciones y Drogodependencias.

Segundo.– La Ley 1/2016 de Atención Integral de Adicciones y Drogodependencias declara que constituye, para cada una de las Administraciones Públicas del País Vasco en el ámbito de sus competencias, área de actuación preferente y prioritaria, la promoción de la salud y prevención de las adicciones y drogodependencias.

Por otra parte en su Título Sexto Capítulo Tercero, prevé la participación de la iniciativa social en la realización de actividades de promoción de la salud, prevención, asistencia, inclusión social, información, formación e investigación en materia de adicciones. En tal sentido dispone que las Administraciones Públicas Vascas apoyarán, conforme a sus disponibilidades presupuestarias, las iniciativas sociales promovidas por personas y entidades privadas que tengan por objetivo, entre otros, el desarrollo de actividades y programas que atiendan las situaciones de especial vulnerabilidad producidas por las adicciones y conductas adictivas o conductas excesivas que pueden generar adicciones comportamentales; determinando que para la concesión de subvenciones tendrán carácter preferente.

Tercero.– El Plan Estratégico de Subvenciones del Ayuntamiento de Bilbao, definido como instrumento necesario para articular y definir los principios y estrategias regidores de la actividad subvencional del Ayuntamiento de Bilbao, recoge dentro del régimen de concesión directa, sin necesidad de realizar una convocatoria pública, las subvenciones previstas nominativamente en el Presupuesto Municipal.

Así, el Presupuesto de Gasto del Área de Salud y Consumo 2024, Capítulo IV, describe subvención nominativa a favor de la Asociación Comisión Ciudadana Antisida de Bizkaia, por importe de 254.000 euros, para el desarrollo de los programas: Programa de Atención Básica Integral y Adquisición de Hábitos Saludables y el Programa de Acogida y Acompañamiento Sociosanitario.

P.E.P.: 2024-22000-4-00152-2024

APG: 2024-22000-31110-4819900

Cuarto.– La Asociación Comisión Antisida de Bizkaia es una entidad sin ánimo de lucro que cuenta como fin el mejorar la calidad de vida del colectivo de personas usuarias de drogas por vía parental e inhalada así como la disminución de la incidencia, y morbilidad de las enfermedades del VIH/SIDA y Hepatitis B y C. Estas personas se encuentran en situación de grave marginalidad social, tienen deteriorada o en grave peligro su salud y la de los suyos, encontrándose a menudo al margen de las redes de apoyo socio-sanitarias.

Quinto.– El día 31 de enero de 2024 la citada Asociación presenta Programa a desarrollar en el año 2024 junto con el Presupuesto de Ejecución por conceptos. Los citados documentos, se acompañan como Anexos al presente Convenio, Anexo I” Programa” Anexo II “Presupuesto de Ejecución”, acompañado de documento explicativo, formando ambos parte del mismo, por lo que deberán ser suscritos por las partes.

Sexto.– La Junta de Gobierno de la Villa de Bilbao en su sesión celebrada el día XXXXXXXX de 2024 ha acordado conceder directamente a la Asociación Comisión Antisida de Bizkaia subvención por importe de 254.000€ prevista nominativamente en el Presupuesto de Gastos Municipal 2024 para el desarrollo de los programas: Programa de Atención Básica Integral y Adquisición de Hábitos Saludables y el Programa de Acogida y Acompañamiento Sociosanitario.

Séptimo.– Siendo los convenios el instrumento habitual canalizador de las subvenciones previstas nominativamente en los presupuestos locales, el Ayuntamiento de Bilbao (Área de Salud y Consumo) y la Asociación Comisión Anti-sida, en virtud de cuanto antecede, acuerdan definir los compromisos y condiciones dimanantes de la subvención directa prevista, suscribiendo el presente Convenio con arreglo a las siguientes:

ESTIPULACIONES

Primera.– El objeto del presente Convenio es canalizar la subvención prevista nominativamente en el Presupuesto Municipal concedida directamente por Acuerdo de la Junta de Gobierno de la Villa de Bilbao de fecha XXXXX de 2024, a la Asociación Comisión Anti-Sida de Bizkaia para el desarrollo del Programa de Atención Básica Integral y Adquisición de Hábitos Saludables y el Programa de Acogida y Acompañamiento Sociosanitario, conforme a los contenidos incluidos en el citado Programa (Anexo I) y en el presupuesto de ejecución (Anexo II), disponiendo en consecuencia, los compromisos, condiciones, derechos y obligaciones de las partes suscriptoras del mismo.

Segunda.– La Comisión Antisida en los términos establecidos en el presente Convenio se compromete al desarrollo de los programas: *Programa de Acogida y Acompañamiento Sociosanitario* y el *Programa de Atención Básica Integral y Adquisición de Hábitos Saludables* del “Centro de atención y emergencia socio-sanitaria para personas usuarias de drogas en grave exclusión social”, recurso dirigido a la atención y cuidados socio sanitarios de aquellas personas usuarias de drogas, especialmente aquellas que, a causa de su dependencia se encuentran en situación de grave marginalidad social, tienen deteriorada o en peligro su salud y la de los suyos manteniéndose al margen de las redes socio sanitarias. Dicho programa se desarrollará conforme a los contenidos en el citado programa (Anexo I) y en el presupuesto de ejecución (Anexo II).

Contextualizado en el ***Programa de Acogida y Acompañamiento Sociosanitario*** se desarrollarán los proyectos siguientes:

- Fase de captación y acogida, que se inicia cuando la persona usuaria de drogas acude por primera vez al centro. En ella se realizan: una entrevista, un diagnóstico de necesidades biopsicosociales y se concluye con un plan de atención y acompañamiento individualizado (PAI), que será reactualizado cada vez que se interviene con dicha persona.
- Fase de acompañamiento sociosanitario individualizado: tras la primera fase se desarrollan una serie de acciones dentro y fuera del centro encaminadas a cubrir las necesidades sociales y sanitarias de la persona adicta detectadas e incluidas en el plan de atención individualizado.

Así mismo contextualizado en el ***Programa de Atención Básica Integral y adquisición de hábitos saludables***, se desarrollarán los proyectos siguientes:

- Proyecto de Estancia y Descanso.
- Proyecto de Alimentación Básica.
- Proyecto de Higiene personal y Autocuidado.
- Proyecto de Intervenciones Socioeducativas de Primera necesidad

Para el desarrollo de estos programas, el centro abrirá durante todo el año 2024, los 365 días, en el horario siguiente: de lunes a viernes de 8:30 a 20:30; los fines de semana y festivos de 8:30 a 13:00 y de 15:00 a 19:00h.

Tercera.- La Asociación Comisión Anti-sida de Bizkaia se compromete a disponer de los recursos económicos, personales y materiales pertinentes para garantizar el desarrollo de la programación convenida descrita en el apartado segundo. Así mismo se compromete a:

- Informar al Área de Salud y Consumo del desarrollo de la programación convenida durante el 2024.
- Informar al Área de Salud y Consumo de las actuaciones realizadas en el ámbito del Convenio durante el 2024, mediante la presentación de dos memorias, una en junio y otra en diciembre, así como poner a disposición de la citada Área cuanta información pueda demandarse por resultar de interés su conocimiento.
- Colaborar dentro del ámbito de actuación de la Comisión Anti Sida en cuantas actividades o actuaciones puntuales, que en relación con este Convenio, sean promovidos por el Negociado Municipal de Prevención de las Adicciones , sin que esto suponga un coste adicional
- Comunicar con antelación suficiente cualquier eventualidad que pudiera repercutir en la realización de la programación convenida, acompañado de

las alternativas de actuación en el supuesto de que dicha repercusión determine la imposibilidad de desarrollar alguna de las actividades convenidas.

- Cumplir, especialmente en lo referente al personal adscrito a la realización de actividades que se relacionan en el presente convenio, con la normativa fiscal, laboral, Seguridad Social y de Seguridad e Higiene en el trabajo.

El Ayuntamiento de Bilbao se reserva la facultad de realizar cuantas investigaciones y/o comprobaciones estime oportunas en orden a verificar el cumplimiento de los compromisos asumidos por la Asociación Comisión Anti-sida, así como la veracidad de los datos contenidos en las justificaciones e informes solicitados. El personal responsable de la Asociación vendrá obligado a colaborar con la Administración en la función de fiscalización.

Las actividades incluidas en la programación convenida serán gratuitas y el colectivo destinado será la población de Bilbao preferentemente. Al mismo tiempo se contemplará la perspectiva de género, integrándola en la medida de lo posible en las actividades a desarrollar. Con carácter obligatorio, la entidad deberá publicitar la participación municipal en el desarrollo de este proyecto incluyendo el logotipo del Ayuntamiento (Área de Salud y Consumo) en los materiales que genere (hojas informativas, folletos, carteles...).

Cuarta.- El Ayuntamiento de Bilbao (Área de Salud y Consumo) financia económicamente el desarrollo de la actividad mediante la concesión de forma directa de una subvención descrita nominativamente en el presupuesto municipal, por importe máximo de 254.000€, habiéndose efectuado las oportunas operaciones económicas-contables con cargo al presupuesto de gasto del Área de Salud y Consumo para el ejercicio 2024.

El desembolso de la citada cantidad se efectuará en dos pagos, uno a la firma del presente Convenio por importe de 203.200€ y el importe restante en el mes de julio previa presentación del Informe memoria correspondiente al primer semestre de vigencia de Convenio, no resultando necesaria la presentación de garantía.

Quinta.- La presente subvención es incompatible con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales.

Sexta.- Cualquier modificación sustancial del programa habrá de ser solicitada con carácter previo a su realización por escrito al Ayuntamiento de Bilbao quien deberá expresamente autorizarla. Las solicitudes de modificación sustancial han de estar motivadas, especificando las repercusiones presupuestarias y del cronograma que

implican. La Junta de Gobierno delega en la Delegación del Área correspondiente la autorización de estas modificaciones.

A tal efecto se consideran modificaciones sustanciales las siguientes:

- Cambios en los objetivos generales y/o específicos.
- Variaciones superiores al 20% en los importes de las partidas del presupuesto aprobadas (las variaciones presupuestarias entre partidas no podrán afectar a los costes indirectos), que no impliquen minoración del presupuesto total del programa.

Si la modificación implica una minoración del presupuesto del programa deberá aprobarse por la Junta de Gobierno.

Cualquier otra modificación que no altere esencialmente la naturaleza u objetivos de la subvención podrá ser aceptada en el momento de la justificación, siempre y cuando tal aceptación no suponga dañar derechos de terceros.

Séptima.– Se considerarán gastos subvencionables aquellos que de manera indubitada respondan a la naturaleza de la actividad subvencionada, resulten estrictamente necesarios y se realicen en el plazo establecido en el Convenio. En ningún caso el coste de adquisición de los gastos subvencionables podrá ser superior al valor del mercado.

Cuando el importe de un concepto subvencionable supere las cuantías establecidas en la legislación de contratos del sector público para el contrato menor⁽¹⁾, la entidad beneficiaria deberá solicitar como mínimo tres ofertas de diferentes proveedores, con carácter previo a la contratación del compromiso para la obra, la prestación del servicio o la entrega del bien. La elección entre las ofertas presentadas, que deberán aportarse en la justificación, o, en su caso, en la solicitud de subvención, se realizará conforme a criterios de eficiencia y economía, debiendo justificarse expresamente en una memoria la elección cuando no recaiga en la propuesta económica más ventajosa.

(1)Según lo dispuesto por la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, se consideran contratos menores los contratos de cuantía inferior a 15.000 euros (IVA no incluido), cuando se trate de contratos de suministros o de servicios.

Octava.– La justificación de la presente subvención se realizara, según lo dispuesto por el Art 72 del RGS) con la presentación de cuenta justificativa con aportación de informe de auditor que incluirá:

- a) Una **memoria de actuación justificativa** del cumplimiento de las condiciones impuestas en la concesión de la subvención, con indicación de las actividades realizadas y de los resultados obtenidos. Esta memoria se entregará **antes del 1 de febrero de 2025**, el resto de la cuenta justificativa (puntos b, c y d) se entregará antes del 28 de febrero 2025.
- b) El balance de gastos e ingresos correspondiente a la ejecución del programa, conforme al modelo facilitado por el Ayuntamiento.

- c) Informe de un auditor de cuentas inscrito como ejerciente en el Registro Oficial de Auditores de Cuentas dependiente del Instituto de Contabilidad y Auditoría de Cuentas. Su designación y actuación deberán ajustarse a lo previsto en el art. 74 del Reglamento de Subvenciones, así como a lo previsto en la Orden del Ministerio de Economía y Hacienda *Orden EHA/1434/2007, de 17 de mayo, por la que se aprueba la norma de actuación de los auditores de cuentas en la realización de los trabajos de revisión de cuentas justificativas de subvenciones, en el ámbito del sector público estatal*. (BOE núm. 125, 25/5/2007).
- d) La documentación a revisar incluirá la documentación original justificativa que acredite los gastos efectuados dentro del plazo previsto para la ejecución del programa, distinguiéndose, a estos efectos:
- Los costes directamente relacionados con la ejecución del programa, que deberán quedar justificados en su totalidad, mediante facturas y demás documentos de valor probatorio equivalente.
 - Los documentos que soporten la justificación de gastos incluirán, en todo caso, los siguientes datos:
 - La identificación de la persona beneficiaria.
 - La descripción del objeto del gasto, que deberá estar directamente relacionado con la ejecución del programa.
 - Asimismo, los documentos que soporten la justificación se circunscribirán únicamente al programa que justifican. Con carácter excepcional, en supuestos de actividades llevadas a cabo ocasionalmente por personas que no ostenten la condición de empresarias o profesionales, se podrá admitir la presentación de documentos en los que figure el recibí del importe de la prestación convenida, junto con copia del documento identificativo (DNI, NIE o pasaporte) de la persona perceptora, a los que se acompañará necesariamente, cuando su importe sea superior a 200€, el documento acreditativo de la realización del abono en la cuenta bancaria de la persona perceptora.
 - Los gastos de personal se acreditarán mediante la presentación de las nóminas y cotizaciones a la seguridad social.
 - Los costes indirectos, para los que, salvo requerimiento expreso, no se exigirá justificación documental alguna. Estos costes habrán de imputarse por la persona o entidad beneficiaria a la actividad subvencionada en la parte que razonablemente corresponda de acuerdo con principios y normas de contabilidad generalmente admitidas y, en todo caso, en la medida en que tales costes correspondan al periodo en que efectivamente se realiza la actividad, sin que, en ningún caso, la imputación llevada a cabo pueda resultar superior al 10 por ciento de los costes directos del programa subvencionado. A efectos de justificación, el porcentaje admitido de costes indirectos será el

mismo que el declarado por la entidad en el presupuesto que sirve de base para la concesión de la subvención, y se aplicará sobre los gastos directos efectivamente justificados.

Novena.– El reintegro de los importes percibidos y no dispuestos y cuantas reclamaciones de cantidad pudiera producirse se ajustarán a lo dispuesto por la Ley de Subvenciones 38/2003 de 17 de noviembre, General de Subvenciones y demás normativa de aplicación.

Décima.– El presente Convenio entrará en vigor en la fecha de suscripción del mismo retrotrayendo su efecto a 1 de enero de 2024 y finalizará el 31 de diciembre de 2024.

Undécima.– El presente Convenio se cumplirá a tenor de lo dispuesto en sus estipulaciones, siendo resueltas las dudas y lagunas que pudieran presentarse conforme a lo prescrito por la Ley de Subvenciones 38/2003, General de Subvenciones, y demás disposiciones normativas aplicables por razón de la materia.

Y en prueba de conformidad lo firman las partes intervinientes en el lugar y fecha al comienzo recogidos.

SR.CONCEJAL DELEGADO DEL
AREA DE SALUD Y CONSUMO
DEL EXCMO. AYTO. DE BILBAO

SRA. PRESIDENTE DE LA
ASOCIACIÓN COMISION ANTISIDA

D.Álvaro Pérez Alonso

Dña. Marta Pastor de la Cal



HITZARMEN honen xedea da Bilboko Udalaren Aurrekontuan (Osasun eta Kontsumo Saila) aurreikusitako dirulaguntza izenduna bideratzea Hiesaren aurkako Bizkaiko Herri Batzordearen alde, Oinarrizko arreta integralerako eta ohitura osasungarriak ikasteko programa eta “Arreta eta larrialdi sozio-sanitariorako Zentroa” izeneko dispositiboko harrera eta osasun eta gizarte-arloan lagun egiteko programa garatzeko.

BILDU DIRA

Alde batetik, Alvaro Perez Alonso jauna, Bilboko Udaleko Osasun eta Kontsumo Saileko zinegotzi ordezkaria, Gobernu Batzordeak 2024ko XXXXXXXean eskuordetuta.

Eta bestetik, Marta Pastor de la Cal andrea, Hiesaren aurkako Bizkaiko Herri Batzordearen (IFK: G-48234934) izenean.

Alde biek, ordezkari gisa, ekitaldi hau egiteko legezko gaitasun nahikoa aitortzen diote elkarri, eta, horretarako, honako hau

AZALDU DUTE

Bat. – Bilboko Udaleko Osasun eta Kontsumo Sailak (aurrerantzean, Osasun eta Kontsumo Saila), Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 17.1.10 artikularen markoan, berezko eskumena betetzen du "Osasun publikoaren sustapena, kudeaketa, defentsa eta babesa" izeneko arlo materialean, eta, zehazkiago, legeria sektorialak aurreikusitako funtzioak (1/2016 Legea, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzkoa).

Bi.– Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzko 1/2016 Legeak adierazten du osasunaren sustapena eta adikzioen eta droga-mendekotasunen prebentzioa lehentasunezko jardun-eremuak direla Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publiko bakoitzarentzat, bere eskumenen esparruan.

Bestalde, seigarren kapituluko hirugarren tituluan, jasota dago gizarte-ekimenak osasuna, prebentzioa, laguntza, gizarteratzea, informazioa, prestakuntza eta ikerketa sustatzeko jardueretan parte hartzea, adikzioen arloan. Alde horretatik, xedatzen du euskal administrazio publikoek, beren aurrekontu-baliabideen arabera, pertsona eta erakunde pribatuak sustatutako gizarte-ekimenei lagunduko dietela, baldin eta haien helburua bada, besteak beste, zaugarritasun bereziko egoerak artatzen dituzten jarduerak eta programak garatzea, alegia, adikzioek eta adikziozko jokabideek edo gehiegikeriek eragin ditzaketen jokabidezko adikzioek eragiten dituztenak, xedatuz lehentasuna izango dutela dirulaguntzak emateko orduan.

Hiru.–Bilboko Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoak, zeina Bilboko Udalaren dirulaguntza jardueraren printzipio eta estrategia arautzaileak artikulatzeko eta definitzeko beharrezko tresna gisa definituta baitago, dirulaguntzak zuzenean eta deialdi publikorik egin beharrik gabe emateko araubidearen barruan jasotzen ditu udal aurrekontuan jasotzen diren izendun dirulaguntzak.

Osasun eta Kontsumo Sailaren 2024ko Gastuen Aurrekontuan, IV. Kapituluan, Hiesaren aurkako Bizkaiko Herri Batzordearen aldeko 254.000 euroko dirulaguntza izenduna jasotzen du, programa hauek garatzeko: Oinarrizko arreta integralerako eta ohitura osasungarriak ikasteko programa eta arreta eta lagun egite sozio-sanitariorako programa.

P.E.P.: 2024-22000-4-00152-2024

APG: 2024-22000-31110-4819900

Lau.– Hiesaren aurkako Bizkaiko Herri Batzordea irabazi-asmorik gabeko elkarte da, helburu duena, besteak beste, bide parenteralez eta inhalatuz drogak kontsumitzen dituzten pertsonen bizi-kalitatea hobetzea, eta GIB/HIESaren eta B eta C hepatitisaren gaixotasunen intzidentzia eta morbiditatea murriztea. Pertsona horiek gizarte-bazterketa larrian daude, beren osasuna eta beren gertukoena oso narriatuta edo arrisku larrian dute, eta askotan laguntza-sare soziosanitarioetatik kanpo daude.

Bost.– 2024ko urtarrilaren 31an, elkarte horrek 2024an garatzekoa den programa aurkeztu zuen, egikaritze aurrekontuarekin batera, kontzeptuen arabera xehaturik. Agiri horiek hitzarmen honi eranskinean daude: I. eranskina, "Programa", eta II. eranskina, "Egikaritze aurrekontua" (azalpen dokumentua ere bai), eta biak dira hitzarmenaren osagai, eta alderdi biek sinatu beharrekoak.

Sei.– Bilboko Gobernu Batzordeak, 2024ko XXXXXXXXXXean egindako bilkuran, erabaki zuen Hiesaren Aurrakako Bizkaiko Herri Batzordeari zuzenean ematea 254.000 euroko dirulaguntza, 2024ko Udal Gastuen Aurrekontuan izendun gisa aurreikusia, Oinarritzko Arreta Integraleko eta Ohitura Osasungarriak Eskuratzeko Programa eta Harrera eta Laguntza Soziosanitarioko Programa garatzeko.

Zazpi.– Hitzarmenak ohiko tresna dira toki erakundeek aurrekontuetan izendun dirulaguntza moduan jasota daudenak bideratzeko, eta Bilboko Udalak (Osasun eta Kontsumo Sailak) eta Bilboko Hiesaren kontrako Elkartek, orain arte aipatutako guztiarengatik, erabaki dute aurreikusitako zuzeneko dirulaguntzen ondoriozko konpromisoak eta baldintzak definitzea hitzarmen honetan. Hara nola:

ESTIPULAZIOAK

Bat.– Hitzarmen honen helburua da izendun dirulaguntza bideratzea, Bilboko Uriko Gobernu Batzordeak 2024ko XXXXXXXX0ean hala erabakita udal aurrekontuetan Hiesaren aurrakako Bizkaiko Herri Batzordea zuzenean emandako izendun dirulaguntza moduan jasota datorrena; dirulaguntza hori eman zitzaion Oinarritzko Arreta Integraleko eta Ohitura Osasungarriak Eskuratzeko Programa eta Harrera eta Laguntza Soziosanitarioko Programa garatzeko, programa horretan (I. Eranskina) eta egikaritze aurrekontuan (II. Eranskina) jasotako edukien arabera, eta xedatuz hitzarmena sinatzen duten alderdiek beren gain hartzen dituzten konpromisoak, baldintzak, eskubideak eta obligazioak.

Bi.– Hiesaren aurrakako Batzordeak, hitzarmen honetan jasotako terminoetan, programa hauek garatzeko konpromisoa hartzen du: Harrera eta Laguntza Soziosanitarioko Programa eta Oinarritzko Arreta Integraleko eta Ohitura Osasungarriak Eskuratzeko Programa garatzeko, “Gizarte bazterketa larrian dauden drogen erabiltzaileentzako arreta eta larrialdi soziosanitarioko Zentro”aren barruan. Droga-erabiltzaileei arreta eta zaintza soziosanitaria emateko baliabidea da, batez ere, beren mendekotasuna dela- eta gizarte-marjinalitate larriko egoeran daudenei, beren osasuna eta beren ingurukoena narriatuta edo arriskuan dutenei, sare soziosanitarioetatik kanpo egonda. Programa hori I. eranskinean adierazitako edukien eta II. Eranskinean adierazitako egikaritze-aurrekontuaren arabera garatuko da.

Harrera eta Laguntza Soziosanitarioko Programaren testuinguruan, proiektu hauek garatuko dira:

- Atzemate- eta harrera-fasea, droga-erabiltzailea lehen aldiz zentrorra joaten denean hasten dena. Saio horretan, hauek egiten dira: elkarriketa, premia biosikosozialen diagnostikoa, eta, amaitzeko, banakako arreta- eta laguntza-

plana (API), pertsona horrekin esku hartzen den bakoitzean eguneratuko dena.

- Laguntza soziosanitario indibidualizatuaren fasea: lehen fasearen ondoren, zenbait ekintza egiten dira zentro barruan eta kanpoan, adikzioa duen pertsonaren gizarte- eta osasun-premiak betetzeko; horiek guztiak arreta-plan indibidualizatuan jasota daude.

Halaber, ***Oinarrizko Arreta Integraleko eta Ohitura Osasungarriak Eskuratzeko Programaren*** testuinguruan, proiektu hauek garatuko dira:

- Egonaldi- eta atsedeen-proiektua.
- Oinarrizko Elikadurako Proiektua.
- Higiene pertsonaleko eta autozaintzako proiektua.
- Lehen Premiako Gizarte- eta Hezkuntza-arloko Esku-hartzeen Proiektua

Programa horiek garatzeko, 2024an zentroa zabalik egongo da urteko 365 egunetan ordutegi honetan: astelehenetik barikura, 8:30etik 20:30era; asteburuetan eta jaiegunetan, 8:30etik 13:00etara eta 15:00etatik 19:00etara.

Hiru.- Hiesaren aurkako Bizkaiko Herri Batzordeak konpromisoa hartzen du diru eta giza baliabideak eta baliabide materialak edukiko dituela, bigarren atalean azaldutako programazioa garatuko dela bermatzeko. Halaber, konpromiso hauek hartzen ditu:

- 2024rako hitzartutako programazioaren nondik norakoen berri ematea Osasun eta Kontsumo Sailari.
- Osasun eta Kontsumo Sailari Hitzarmenaren esparruan 2024an egindako jarduketaren berri ematea. Horretarako, bi memoria aurkeztu beharko ditu, bat ekainean eta bestea abenduan, eta Sail horren esku jarri beharko du interesgarria izan dakiokeen informazio guztia.
- Hiesaren Aurkako Batzordearen jarduera-eremuaren barruan, Drogamenpekotasunen Negoziatuak hitzarmen honi dagokionez sustatzen dituen jarduera edo jarduketa puntual guztietan laguntzea, kostu gehigarriak eragin gabe.
- Hitzartutako programazioa gauzatzean eragina izan dezakeen edozein gorabeheraren berri ematea behar besteko aurrerapenaz, jarduteko alternatibekin batera, baldin eta gorabehera horrek hitzartutako jardueraren bat garatzea eragozten badu.
- Hitzarmen honetan aipatzen diren jardueren atxikitako langileei dagokienez bereziki, fiskalitatearen, lan harremanen, gizarte segurantzaren eta laneko higiene eta segurtasunaren arloetako arauak betetzea.

Bilboko Udalak beretzat gordetzen du egokitzen jotzen dituen ikerketa eta/edo egiaztapen guztiak egiteko ahalmena, IHESaren aurkako Batzordeak bere gain hartutako

konpromisoak betetzen direla eta eskatutako justifikazio eta txostenetan jasotako datuak egiazkoak direla egiaztatzeko. Elkarteko arduradunek Administrazioarekin lankidetzan jardun beharko dute fiskalizazio-eginkizunetan.

Hitzartutako programazioan jaso diren jarduerak doakoak izango dira, eta, batik bat, Bilboko herritarrak izango dira haien hartzaile. Era berean, genero-ikuspegia hartuko da aintzat, eta ahal dela, txertatu egingo da garatu beharreko jardueretan. Entitateak nahitaez adierazi beharko du publizitatean proiektuak garatzen Udalak izan duen parte hartzea, eta, hala, Udalaren logotipoa ere sartu beharko du, Osasun eta Kontsumo Sailarena, sortzen dituen materialetan (esku-orriak, liburuxkak, kartelak...).

Lau.- Bilboko Udalak (Osasun eta Kontsumo Sailak) diruz lagunduko du hitzartutako jarduera, eta, horretarako, zuzenean emango dio dirulaguntza bat, Udalaren aurrekontuan izena zehaztuz jasota datorrena, 254.000 eurokoa, gehienez ere; horretarako, dagozkion ekonomia eta kontabilitate eragiketak egin dira Osasun eta Kontsumo Sailaren gastuen aurrekontuaren kontura 2024ko ekitaldirako.

Zenbateko hori bi zatitan ordainduko da: bat, hitzarmen hau sinatzen denean (203.200€), eta gainerakoa, uztailean, hitzarmenaren indarraldiaren lehen seihilekoari dagokion memoria-txostena aurkeztu ondoren. Ez da beharrezkoa izango bermerik aurkeztea.

Bost.- Dirulaguntza hauek bateragarriak izango dira nazioko, helburu bera duten Europar Batasuneko zein nazioarteko organismoetako beste administrazio nahiz erakunde publiko edo pribatu batzuek emandako beste dirulaguntzekin, laguntzekin, diru-sarrerekin edota baliabideekin.

Sei.- Programan funtsezko aldaketak egin ahal izateko, baimena eskatu behar zaio Bilboko Udalari, idatziz; Udalak beren-beregi eman behar du horretarako baimena. Aldaketa garrantzitsu bat egiteko eskabideak arrazoitu egin beharko dira, eta aurrekontuko eta kronogramako ondorioak zehaztu beharko dira. Gobernu Batzordeak dagokion sailaren ordezkartzari eskuordetzen dio aldaketa horiek baimentzeko eskumena.

Horri dagokionez, honako hauek jotzen dira funtsezko aldaketatzat:

- Aldaketak helburu orokor eta/edo espezifikotzat.
- Onartutako aurrekontuko partidetan % 20tik gorako aldakuntzak (aurrekontuetan partida batetik bestera egiten diren mugimenduen bidezko aldaketek ezingo diete eragin zeharkako kostuei), betiere programaren guztirako aurrekontua gutxitzen ez badute.

Aldaketak programaren aurrekontua gutxitzen badu, Gobernu Batzordeak onetsi beharko du.

Dirulaguntzaren izaera edo helburuak funtsean aldatzen ez dituen beste edozein aldaketa, bestalde, justifikazioa egiten denean onar daiteke, baldin eta hirugarrenen eskubideei kalterik ez badakarkie.

Zazpi.– Diruz lagundu daitezkeen gastuak dira diruz lagundutako jardueraren izaera dutenak argi eta garbi, premia–premiazkoak direnean eta hitzarmenean ezarritako epearen barruan gauzatzen direnean. Diruz lagundu daitezkeen gastuen eskuratze–kostua ezingo da izan inola ere merkatu–balioa baino handiagoa.

Diruz lagundu daitezkeen kontzeptuaren zenbatekoa handiagoa denean sektore publikoko kontratuen legeriak kontratu txikirako ezarritakoa baino, entitate onuradunak gutxienez hiru eskaintza eskatu beharko dizkie beste horrenbeste hornitzaileari, obra egiteko konpromisoa hartu baino lehen, zerbitzua eman baino lehen edo ondasuna entregatu baino lehen. Aurkezten diren eskaintzak, berriz, efizientzia– eta ekonomia–irizpideen arabera hautatuko beharko dira, eta justifikazioan edo, hala badagokio, dirulaguntzaren eskaeran aurkeztu beharko dira; proposamen ekonomikoki abantailatsuena hautatzen ez bada, memoria batean justifikatu beharko da espresuki hautaketa hori.

(1) Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen arabera, kontratu txikiak 15.000 eurotik beherakoak izango dira (BEZik gabe), baldin eta hornidura–kontratuak edo zerbitzu–kontratuak badira .

Zortzi.– Dirulaguntza honen justifikazioa, Dirulaguntzen Erregelamendu Orokorreko 72. artikuluan xedatutakoaren arabera justifikazio kontua –horrekin batera auditorearen txostena aurkeztuz egingo da, eta horien artean, hauek egongo dira:

- a) Memoria bat, dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak bete direla justifikatzen duena, egin diren jarduerak eta lortu diren emaitzak zehaztuz. Memoria hori 2025ko otsailaren 1a baino lehen entregatuko da; justifikazio kontuaren gainerako zatia (b eta c puntuak), 2025ko otsailaren 28a baino lehen.
- b) Programa betearaziz izandako gastuen eta diru–sarreraren balantzea, Udalak emandako eredia erabilita.
Kontu–ikuskatzaile baten txostena; ikuskatzailea Kontabilitateko eta Kontu Auditoretzako Institutuaren menpe dagoen Kontu Ikuskarien Erregistro Ofizialean jardunekoa dela agertu beharko da. Haien izendapena eta jarduna Dirulaguntzen Erregelamenduko 74. artikuluan aurreikusitakora egokitu beharko da, bai eta Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren *maiatzaren 17ko EHA/1434/2007 Aginduan aurreikusitakoa ere. Agindu horren bidez, Estatuko sektore publikoan dirulaguntzak justifikatzeko kontuak berrikusteko lanak egitean kontu–auditoreek jarduteko araua onartzen da.*
(EAO, 125. zenbakia, 2007/5/25).
- d) Berrikusi beharreko dokumentazioan, programa gauzatzeko aurreikusitako epearen barruan egindako gastuak egiaztatzen dituen jatorrizko dokumentazioa sartuko da. Ondorio horietarako, honako hauek bereiziko dira:

- Programa gauzatzearekin zuzeneko zerikusia duten kostuak, guztiz justifikatuak ordainagiri bidez edo frogantza-balio baliokidea duten bestelako agirien bidez.
- Gastuak justifikatzeko agirietan datu hauek jasoko dira, nahitaez:
 - Onuradunaren identifikazioa.
 - Gastuaren xede den objektuaren deskribapena, programa gauzatzearekin zuzenean lotuta egongo dena.
 - Justifikaziorako dokumentuek, bestalde, justifikatzen duten programa baizik ez dute izango xede. Salbuespen modura, enpresa-buruak edo profesionalak ez diren pertsonak noiz edo noiz egindako jardueretan, onargarria izango da hitzartutako prestazioaren zenbatekoa erakusten duen hartze-agiria aurkeztea, jasotzailearen identifikazio-agiriarekin batera (NAN, AIZ edo pasaporteak). Prestazioa 200€ euro baino handiagoa denean, derrigorrezkoa izango da jasotzailearen banketxe-kontuan ordainketa egin izanaren ziurtagiria aurkeztea.
 - Langile-gastuak justifikatzeko, nominak eta Gizarte Segurantzari egindako kotizazioak aurkeztuko dira.
- Zeharkako kostuak: halakoetarako, berariaz eskatzen ez bada, ez da beharrezkoa izango agiri bidez justifikatzea. Kostu hauek diruz lagundutako jarduerari atxikiko dizkio, arrazoizko neurrian, pertsona edo entitate onuradunak, normalean onartzen diren kontabilitate arloko printzipio eta arauarekin bat etorrira eta, betiere, kostu horiek jarduera gauzatzen den aldikoak badira. Jarduerari dagozkion zeharkako kostuak ez dira inoiz izango diruz lagundutako programaren zuzeneko kostuen %10 baino handiagoak. Justifikatzeko orduan, dirulaguntza emateko baliatutako aurrekontuan onuradunak berak deklaraturakoa izango da zeharkako kostuetan onartuko den ehunekoa eta, hala, egiaz justifikatutako zuzeneko gastuei aplikatuko zaie ehuneko hori.

Bederatzi.- Jasotako eta erabili gabeko zenbatekoak itzultzeko, eta diru-kopuruei buruzko erreklamazioak egiteko, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta aplikatu beharreko gainerako arauetan xedatutakoa bete beharko da.

Hamar.- Hitzarmen hau, beraz, sinatzen den egunean jarriko da indarrean, eta beraren eragina atzeratu egingo da 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerakoa izan dadin, eta 2024ko abenduaren 31n amaituko da.

Hamaika.- Hitzarmen hau bere estipulazioetan xedatutakoaren arabera beteko da, eta Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean eta arlo horretan aplikatzekoak diren gainerako arau-xedapenetan ezarritakoaren arabera ebatziko dira sortzen diren zalantzak eta hutsuneak.

Eta ados daudela adierazteko, parte hartu duten alderdiek sinatzen dute, hasieran adierazitako lekuan eta egunean.

BILBOKO UDALEKO OSASUN ETA
KONTSUMO SAILEKO ZINEGOTZI
ORDEZKARIA

Alvaro Perez Alonso jauna

HIESAREN AURKAKO BATZORDEAREN
PRESIDENTEA

Marta Pastor de la Cal andrea